

ALBISTE ON BAT URTEORO BERRITZEN DANA.

—————

**Edadean eta dotriñan lenagoko denboretako gizon-
zar FERNANDO eta onen antzekoen, eta oraingo denboretako
ERNESTO, eta bere gisakoen arteko «jolas-aldiya.»**

~~~~~

*Fenandok.*— Garizuman gaude, adiskideak, eta gertatzen diran gauzen erdien konturik eziñ eman diot nere buruari. Gure denboretako kristau-katolikoak barau eta bijiliak kontuz atera, eta Bulda santua arretarik aundienarekin artzen zuen: eta zuek ikusten zaituet oraiñ barauaz par egiten, noiz eta nola nai, ostiraletan ere, aragia jaten; eta Buldaz berriz soma-alá gaistakeri esaten. ¿Nondik bada trukaera aiñ aundi au? ¿Lasaitu aldira legeak, iriki oso zuentzat Zeruetako atepak, edo ukatu eta ernegatu dezue menturaz Erlijioaz?

*Ernestok.*— Zubek iñozuak eta apaiz ta prailiak engañatubak izana ez dizugu guk kulparik: adiskidea, oraingo jendia ernaya eta askoz jakiñagua dezu, eta ondo-badakigu treta orien berri. Gañerakoan jakiñ ezazute zubek beziñ maite dizugula *egiazko* Erlijioa eta Aita Santua bera beziñ katolikoak gaituzula ere.

*Fenandok.*— Milla esker adiskideak, zuen mesede bereziagatik: gu ez jakiñak *tonto aundi* batzuek izango giñan, baña alaz guziaz ere zuek guziok baño dotriña geyago ikasi genduen. ¡Ala ere zuek jakintsu aundiak zerate!... !Umiltasuneko ispilluak!... ¿Baña noiz, nundik eta nola zuek jakintsuak? Oroitzen naiz etziñatela eskolan zebiltzatenean gaiñ gañekoak ez apizioz, ez argi ez eta azkartasunaz ere: ez det gero entzun ikaslekuetan bizi izan zeratenik; Salamanka ta Toledon urteak igaro dituzuenik, eta oraindik guchia-go berriz, gure denboretako jakintsuak bezela, liburu zar aundien gañean betazalak erretzeraño gau ta egun egon zeratenik: eta ¿noiz, nondik eta nola bada irten zerate jakintsuak? kafé taberna, teatro

eba eche gaistoetan edo chanponeko liburu eta gazetetan entzun edo irakurri dituzuen ipui eta jolás zentzu-gabekoetatik? ¿Zer dakizue zuek guk baño geiago nai dezuen guzia esan eta egiteko errespeto palta eta lotsagabekeria baizik?—Eta au onela dan edo ez agertze-ko esan zaiguzue, mesedez bederik, ezer ez dakigun tonto obei *Barau-bijilia* eta *Bulda santuaren* gañean zuek jakingo dituzuen zenbait gauza on eta egoki.

*Ernestok.*— ¡Barau-bijiliak! ona emen gauza batzubek zuben eta sorgiñ denboretan begi ichi ichiyakin siñistu eta gorde biar zenituztenak: ¿eta nola bestela salbatu?.... naspillatu eta oiñperatutzen zenituztela ichura gabekeri oyekin Jaungoikoaren eta Erlijiyoaren izen santu eta edertasun adorarriak. ¿Baderitzatu, gišašo orri, aintzakotzat artzen ditubela Jaungoikoak orrelako ezerezkeriyak? ¿Beste egitekorik ez balizu bezela, zuk chardin zarra, edo tripakiyak, izokiya edo eperrak jate ote dituzun kontu artzen dagokizula? Zuek, iñozo char oriek zeren ergelkeriyetan pipa pistu biar dezuten bakoitzean ekarri arazinaiko zenuteke Jaungoikoa illati bat eskubetan dubela Zeruko bere jarlekutik zuben sukalde bazterreko zizilluetara. Gizónak, etzaitzeltela izan orren choroak: *barau bijiliak* ez dituzute Jaungoikoak aginduak; jan eta edan ezazute gogo dezutena edo aldezakezutena, bada orretzaz Jaungoikoari etzayo ajolaren ispirik. Jaungoikoak naidizu, bai, aitortu eta maitatu dezagun, baña *biyotzez*, *biyotzez*, eta ez orrelako moja, beata, eta jende ez jakiña izutzeko, apaizak sortuko iduripenakiñ. Gauza oyen denbora joana dezu; eta oraingo jendiak ez dizugu trabarik zintzurrian eta eskrupulo guchiago berriz konzienziyan zernai jateko: eta ¡ai! gauzak bagenituke merke merke nai degun guzian jateko; ¿ez dakizute ala bainganere *aotik sartzen danak ez dubela anima loitzen*.

*Fernandok.*— ¿Zer, eta ori da ikasi dezuen guzia? ¿Ez dezue ezer geiago esatekorik? ¿Desegokeri oriek jakiteak arrotu eta puztu zaitue orrenbesteraño? ¡Zuek bai zeratela egiazko tonto eta iñozo gais-toak! Sorkeri oriek ez dira gaurko egunekoak; esaten ziran gure denboretan ere. Berrogei ta amar bat urte badira gure erriko mutil bat, Alberto zerizkiona, urte banaka batzuek goi oietan, zerretan edo bide egiten igarota, echera biurtu zala, eta joko, taberna eta alperkeari bizian zulorik zulo gau ta egun ibiltzen zalarik, zuek oraiñ esan dituzuen gauz oriek ber-berak esaten zituen. Non eta nola erebait zuek aditu eta ikasi zenizkaten. Etzuen, baña, iñorcho ere jakintsutzat artu tema gaisto eta anima galdutako alper aunditatzat baizik: eta izen goititzat *Alperto* ezarririk jende guzia aundi ta chiki aienatzenzan argandik inpernuko deabrua gandik bezela.

Azkenik zenbait itsusikeri eta licharrerri egindakoan eraman zuen Zeutara, ainbeste maite zituan barau bijiliak bere bizitza guzian egi-tera, eta ez degu entzun andik zeruetara joan danik. Etzerate beraz zuek besteak baño batere jakintsuagoak: Alperto zuen maisua zan, edo beñik-bein bai zuek bezin jakintsua; eta iduritzen zat beste edozeñek ordu erdi batean orrenbeste eta geyago ere ikasi dezakeala.

¿Beraz Jaungoikoak ez du konturik zuek ezerezkeriak dirala diozuen orietzaz? ¿Nola bada kontatuak dauzka gure buruetako illeak ere, eta ez da erortzen oetatik bat bakarrik beraren aginte gabe Eskritura santuak dionez? *Jan litekeala zer nai eta noiz nai pekatu gabe diozue zeren autik sartzen danak anima ez duan loitzen....* ¿Zér egiñ zuen bada gure lenengo guraso triste Adan eta Ebak, eta nondik etorri dira aiekiñ gure-gaiñ eritasun, negar, gerra, peste, eriotza eta bizitza onetako eta besteko naigabe eta galera guziak, ezpada Jaungoiko gure Jaunak debekatutako mokadu zorigaistoko bategatik? ¿Jaungoikoak etzien debekatu Israeltarrai jatea cherriki, lazoz arrapatutako egazti eta beste edozeñ odol ustugabeko bizikari? ¿Eta etzuen aginte ura guardatzen pekatu larriaren azpian erri arrek guziak Moisés Josué, Gedeon, Sanson, Dabid, Salomon eta beste milla eta milla gizonek jakintsu, aberats, santu eta fortisenakin batean? .... *¿Eta barauak?...* ¿Nork ez daki mundu guziak miretsitzen duan Moisesek, Jaungoikoaganako zelo eta amoriozko sugarretan irazekitako Eliasek, San Juan Bautista batek eta Jesu-Kristo gure Jaunak berak egiñ zituela ur tanta bat gabe berrogei eguneko barau soll-sollak? ¿Nork ukatu du beñere Ama Birjiñak, Apostoloak, Obispo eta fededun kristau guziak asi zirala Jesusen eriotzatik bertatik garizuma santuko barau bijiliak ateratzen? ¿Nondik bada Alpertok eta zuek arren jarraitzalleak sortu dezue barau bijiliak apaizak ipiñiak dirala choroak engañatzeko? Guziok dakigun egia da Jaungoikoak ber-berak aginduak ez dirala orain ditugun barau ta bijiliak; eta beragatik ez daudela Jaungoikoaren legeko amar aginteetan; ez bada Ama Eleiza Santa Erromakoak ipiñiak dirala gure pekatuen penitenzi zerbait egiñarazitzeke, gure gorputzaren gurari eta griña gaistoak ezitzeko, onen odol charrak garbitu eta osasunari begiratzeko, tentazioen garaipenerako animari indarrak emateko, Zeruko graziak eta Ama Birjiñareñ, Aingeruen eta Santuen laguntza iristeko, eta gugatik barau gorri, arantza gogor, azote, neke-oñaze eta eriotzarik samiñ ta lotsagarriena eraman zituen Jesusen seme esker-onekoak agertzeko. ¿Eta uste dezue ez dala aski Eleiza Ama Santak aginduak izatea? Zer: ¿ez dakizue Jesu-Kristok jantzi eta ornitu zuela kristau fede-

dunai legeak ipintzeko eskubidearekin eta salbazioko eginkizun guzietarako utzi zuala bere ordekotzat esaten ziolarik *entzuten etziona iduki zezala* ez katolikotzat baizik *jentiltzat*? Eta alaere zuek diozue Aita Santua beziñ katolikoak zeratela: ¿nori orduan bear diozue siñistu eta jarraitu Jesusekin bere Eleiza Santari edo Luterorekin Alpertori? Edo zuen Aita Santu aiña izateak esan nai du gizon batetik bestera ez dagoala gora bera aundirik eta zeren usteetan zeratela aita santu Luziferrek Jaungoiko uste zuan bezela? ¡A! eta zêr aita santuak zuek .... ikustekoak izango lirake zuen erakuste eta batzar naspillatuak! ... Gañera diozue *ez dezuela zer nai eta noiz nai jateko eskrupulorik*; ¡ai triparen mendeko doakabe gaiñoak! ¿Ez dezue beraz pekatu larriak egiteko eskrupulorik, esanaz *Baleudeke gauzak merke merke nai dan guzia jateko*? Bai eta konzienzia ordoiturik, eternidadeaz oso azturik eta ez bazendukee bezela Sabela beste Jaungoikorik, merke eta ondo merke saltzen dezue Jaungoikoari ainbeste kosta zaion zuen anima gaño-ori, irentsitzen dezuela beraren betikotasun guziko galera. ¡O! eta zeñ urri-karriak zeraten adiskideak! Une batez, bederen, pensa ezazue jarren! gai onetan.

*Ernestok.*— ¡Milla deabrua, ori erretolika! Ez dizugu entzun gure biziyan errelako sermoirik: gizona, gizona: arritu eta zur egiñak utzi gaituzu. Gauza oriek egiak badira itzegiten degu zenbait aldiz zer esaten degun ez dakigula .... Baña eziñ litezke orrela izan.... ez.... ez ¿nola ala baidanere esan zezakean Jesusek *aotik sartzen danak ez duela loitzen gizona*? ¡Ola! eta zer guchi oroitu zeran adiskidea itz orietzaz: zu malzur malzur beti zerera; baña ordian emen egon gu ere utsegiteak arrapatzeko. Esan zaiguzu bada argiro ¿Jesu-Kristo gure Jaunarenak dirade itz oriek? ¿Bai edo ez? ¿Bai? orduan zeñek dizugu arrazoi eta zeñ gaituzu katolikoagoak zuek edo gu?

AGUSTIN JAUREGI-KOAK.

(Aurrandetuko da.)



## ALBISTE ON BAT URTEORO BERRITZEN DANA.

**Edadean eta dotriñan lenagoko denboretako gizon-  
zar FERNANDO eta onen antzekoen, eta oraiño denboretako  
ERNESTO, eta bere gisakoen arteko «jolas-aldiya.»**

(AURRANDEA.)

*Fernandok.*— ¿Itz orietan dago zuen katoliko izate guzia? Banuan bai beldurra mingaiñ utsean egongo zala zuen fede eta katoliko izatea. Jesu-Kristok esan zuen, bai, eta ez dago zer ukatu aotik sartzan danak ez duela loitzen gizoná baizik biotzetik irteten danak loitzen duala gizona eta belarriak dituenak aditu ditzala: Jaunari eskerrak ez dezue zer negar egiñik belarririk eman ez dizuelako, baña alaz guziaz ere, ez dituzue oraiñdañokoan ondo aditu itz oriek. Ea, bada, oraiño aldian bederen bear bezela entzun eta ikasten ote dezuen zer esan nai duen. Jakingo dezue bear bada zer azaleko gizonak ziran Jesu-Kristoren denboretako parisio aiek. Nola pekatu larri eta itsusiaz loituak egonik santu azaldu eta alatzat edukitzea nai zuen, eta besteen utsegitearen iduripen chikiena iñola ese eraman eziñ zuen. Ikusirik, bada, gizon deabruzko aek Jesusen Apostoloak etzuela eskurik garbitzen jateko aurrean judioak oi zuen bezela osó minberatu eta su bizian sarturik (gaurdan egunean zenbait gizon eta mutil charar abade edo apaizen utsegite irudi edo beren inguruan aetako bat ikuste utsarekin sutzen diran bezela) juan zitzaiozkan Jesu-Kristo Jaunari kontu estuak artzera jende guziaren aurrean eta arrokeri eta ausardi aundiarekiñ. Aen barrengo berri ondo zekienak bezela, eraso zien Jesusek aserre santu batekiñ eta beren biotzen usteltasuna azaldu ondoren, an t'emen bota eta aienatu zituan beregandik bukatzen zuelarik bere eraso zuek aiñ gogoan darabilkitzuen eta oraiñ aurretik esan ditugun itz oriekin. ¿Zer uste bear dezue bada esan nai zuala une artan itz orie-

kin ez bada Apostoloak etzuela pekatu-ekin egin, au da etzuela *loitu* anima iñongo legez agindua etzegon oitura ura gorde gabe jatearekin; baña bai parisioak beren biotz charretatik agertzera eman zuen zitalkeri eta errenkura arrekin? ¿Eta zér aditzera ematen digu Jesusek esaera orrekin pekatua ez kanpoko gauzetan, ez bada gure biotzetan sortzen dala baizik? ¿Eta au nork ez du aitortzen? ¿Ez dakizue pekatua ez dala gugandik kanpora dabillen pisti edo erozeiñ, aotik sabelera sartu litekean, beste gauzen bat? Ez da ez pekatua adiskideak janari eta eraria, ez da (zuen izkuntzaz balia nadin) pekatua chardiñak eta tripakiak, edo arraia eta aragia; eta aiñ guchi purga eta puzoia bera ere; (bada gauz-oeke pekatu balira, gizon guziak, aundi eta chiki, aur ta zar, osasundun eta eriak, ala aberiak, nola arrai eta pisti mota guzia, itz batean, bizitzeko jan bearra duen guziak, pekatuz loitu eta puztuak egongo lirake); baizik pekatua da biotzak, au da borondateak egiten duan eragabekeri itsusi bat, zerbait agindu edo debekatzen duan legea austerekin. Ez dago beraz pekatua kanpotik, dala janean edo edanean; dala beste nolana; barrena sartu ditezken gauzetan, ezpada gauza oriek agindu edo debekatzen dituan lege santua ausitzen dituan biotz edo borondate charrean; gertatzen dala beti egia Jesu-Kristok esan zuana *ez duala gizona (au da anima) loitzen aotik sartzen danak baizik loitzen duala biotzetik irteten danak*. Obeto kontura zaitzen au nola gerta litekean, demagun, zuk Ernesto, daukazula echean urdai azpiko bat, eta eri daukazun emazte eta ainbeste maite dezun lau urteko semecho oriekin jaten dezula astearte iñauteriaz aparitan zati bat. ¿Loituko zaitzue arrekin anima? Guziok esango dezue ezetz: eta ala da. Ba biaramunean, au da austerriz, *barau bijiliak* zorakeriak dirala zuk esanaz, edo pensatuaz, edo beñik bein zure sabelak ala nayaz, kentzen diozu bezperako urdai azpiko-ari berari beste zati bat, eta asitzen zera amaiketako egiten, zu ikusiaz laguntzen dizularik zure semechoak eta orobat, nai duana jateko mendikoak baimena emanik daukan eta usai gošora zerbait gogo naia egin zaion, zure emazte eriyak. ¿Zer gertatuko litzake? ¿Loituak gueldituko ziñakee zu, emazte eta aurra? Ez. ¿Zer bada, irurok garbi? Ez eta ere: baizik aek len beziñ garbi eta zu Ernesto loitua. ¿Eta loituko zinduke aotik sartu dezun urdai azpiko zatiak? Ez, zergatik zedorrrek bespera egunean, eta zure emazte eta semechoak egun artan berean zurekin batean jan dezuen urdai ber-beretik zan; eta ez zu besperan, eta ez aek orduan, ez ditu loitu; eta ori, errešagoa dirudielarik aur eta andre eri bat loitzea, zu bezelako gizon sasoiko eta fortitz bat baño. ¿Zerk loituko zinduke bada Ernesto? Ez beste gauzak,

ez bada egun artan aragia jatea zuri, baña ez emazte eri eta ezagüer-  
 ran sartu gabebo aurrari, debekatzen zizun Eleiza ama santaren le-  
 gea ausi duan, zure biotzetik irtendako zale charrak. Orra, bada,  
 nola gertatzen dan, eta nola zuri zedorri gertatuko litzaizukean,  
 aotik sartu *dezun urdai-azpikoak ez loitzea anima*; baña urdai az-  
 piko una jateko *zure biotzetik irten dan lege austeak loitzea ani-  
 ma*. ¿Konturatu zerate oraiñ ondo eta osó Jesusen itz orietzaz, eta  
 nola ez duten ezer esan nai *barau-bijilien* kontra? ¡Baña zenbat itz  
 eta neke egiñ arazi dirazuen, azal gogorreko oiek, taberna eta baz-  
 ter guzietan, itzetik ortzera, aspertu eta goranaia emateraño, dara-  
 biltzuen esaera, orrek, zer esan nai duan aditzera emateko! Gauza  
 chit erreña da alabaiñdanere, zer nai desegokeri esatea begiramentu  
 eta erreparo gabe; baña ez ordean aek eta batez ere aiekin animetan  
 egiten diran kalteak desegitea. Isil zaitzte bada gai orretan: ez  
 dezazuela eundaño geiago Jesusen itz edo esanik errespeto gabe  
 aotan artu. Beldur izan zaiozue gaitzbide edo eskandaloko pekatua-  
 ri, bada Jaungoikoak ortzaz eskatuko duan kontua estu eta izuga-  
 rria izango da; eta zerok onak izan nai ez badezue ere, izan zaitzte  
 gaistoak zerontzat bakarrik, eta ez parisio besteentzat.

Ez zadazue gaizki artu garratzcho mintzatu banaiz, bada zuen  
 esaera charrak, eta nere buruko ille zuriyak zuen gaiñ ematen di-  
 reen eskubideak, ortaratzen naue: zor diozue zerbait begiramentu  
 nere edadeari eta pazienziarekin bear dituzue entzun zuen onerako  
 ematen dizkitzuetan erakuste eta gaztiguak. Gelditzen gera, beraz,  
 chit anziñakoak dirala zer nai jatea debekatzen zuten legeak, eta  
 gordetzen zituztela munduak izan dituan gizonik jakintsu eta forti-  
 tzenak: eta katolikoak ditugun *barau-bijiliak* dirala Ama Eleiza  
 Santak, Jesu-Kristok emanik daukan eskuarekin, arrazoi egokiaz  
 eta pekatu larriaren azpian jarriak; eta katoliko dan eta deitzen da-  
 nak bear dituela atera apuko gabe, obedituaz onela Eleizari, obe-  
 ditzekotan beñik beñ Jesu-Kristori.—Oraiñ: Ernesto eta lagunak,  
 ikusi zagun zer ikasi dezuen *Bulda Santuaren* gañean.

*Ernestok*.—Luze eta azken alde orretan endemas garratzcho  
 mintzatu zera adiskidia. Baña zuben aiña ezagüera badizugu, eta  
 gizona mintzia zer dan jakiñik, zerbait eramaten badakigu bai eta  
 arrazoyari toki ematen ere. Ala, ez dizugu ukatuko zure oraiño  
 arrazoi oyek egokiyak dirala, ezgenizkitzula eundaño orren argiro  
 ikusi, eta arreta geyagorekin oraindik obeto oyetzaz kargu egingo  
 gerala; baña era berian nai dizugu erakutsi eta jakiñaren gañian  
 jartzen zaitugu, ez gaituzula gu, iñozo zenbaitzuben pensatzen du-  
 ten bezela, parte gaistokuak, ez turkuak eta erejiak ere, baizik

kristabak, eta beste edozeñek aiña fede degunak, eta zubek beziñ seguru zerura joatia ere espero degunak. ¿Zer bada, uste aldeute Jaungoikoak egiñ zubela zeruba zubentzat bakarrik?—Egiya da, eta une onetan ezagutzen dizugu, gure jostatze, arrotasun eta umore onian esaten ditugula zenbait gauza esan biar ezgiñituzkianak; baña geyenetan ez biyotzetik eta ez intenziyo charraz ere, ez bada oituz eta parra eragiteagatik: eta Jaungoikoa nola bai dezun *gizon-ona* eta ez gu bezelako chatar eta giñsacharra oyek eta geyago erraz barkatzen dizkitzu.

*Barau-bijiliyuak* esan diguzunez dira kristau katoliko guziyai eta egokiñamar jarryak, eta beragatik pasatu litezkianak: ¿baña Buldaren gañian zer nai dezu esatia? Au da gauza bat aitatze utsak tri-pako miña egiten dirana.—Diru truke paper-zar-bat: paper au artzen dubena bapo; janlezake arkumia: erosten ez dubena ¡kontu! azoliyoakiñ bego: onetan ere aberatsentzat arroza, eta pobrientzat gorotza. Au ez dezu, gizona, Jesukristoren legia, ez bada ogiya jaten duten santubak gerozko denboraten erantsi diyoten arabakiya. Ez nazkitzu ez gai onetan sartuko Jesu-Kristo, Ama Birjiña, Apostolo, Moisés, Salomon eta beste len izendatu nazun aitona-talde ura guziya. Au dezu, ez geyago eta ez guchiago, chanpon tratuba apaiz eta prailiak, konseju onak bestiai emanaz eta mokadu onak berak janaz, zakelak betetzeko sortuba.

*Fernandok*.—Gizónak ¿noiz arte izan bear dezue mingaiñ luze eta lasaiak? ¿Noiz arte zentzu eta lotsikgabekoak? Oraingo itz-aurrenean aitortu dezue ezaguerako gizonak zeratela badakizuela arrazoiari toki ematen, eta zenbait aldiz itz egiten dezuela bear etzendukeen eran: eta ondoren bertan eraso diozue astakeri itsuenak esateari, zeru-lurreko gauz errepetagarrienai eta zeren gizatasunari zor diozuen errespeto eta begiramentuen izpirik gabe. ¡A! Ernesto, Ernesto! zurekiñ gertatzen da chakur errenakiñ gertatzen dana. Arri edo makilla golpe baten iduriarekiñ ekiten dioe lasterka, errenak ez balira bezela; baña urrengo unean bertan, ankaerrena jasotzen due, eta airean daramae mundu guziari beren errentasuna erakutsi nain, doai eder bat balue bezela. Nere lenagoko arrazoi golpearekin asi zerate zerbaít zuzen itz-egiten, baña ondoren bertan biurturik zeren biotz eta mingañetako errenera, jaso dituzue, eta erakutsi eta gala egiñ naian, gauz eder eta onragarriak balira bezela, ekiñ diozue esaten *beste edozeñek aiña fede badezuela: guk beziñ seguru zerura joatea espero dezuela: guretzat bakarrik aldan zerua; Jaungoikoa gizon-ona dala, ez gu bezelako chatar eta gisacharra, eta erraz barkatzen dituela zuen itsusikeriak eta ge-*

*iago*. Izutzen nau, Ernesto, katolikoak deitzen diran gizon batzuen aotik gauz aiñ errebesatuak aditzeak. Ez dago itz nabarben orietan erlijioaren izpirik ez eta Jaungoikoaganako errespeto eta beldur santuaren kutsurik, ez bada Erljioaren eta Jaungoikoaren desprezio eta burla samiña baizik. ¿Zer balio du erdizkako fedeak, eta zer balioko luke osoak ere, obrak laguntzen ez badie? ¿Ez aldezie entzun iñoiz siñisten duela inpernuko demonioak ere?... Mundu onetako persona onen eta santuenak ere beldur ta ikaraz salbazioko eginkizunetan beren arreta guzia ipiñi bear badue eta justuak berak ikusiko badi-ra estu eta larri azken-juizioko egunean, Eskritura Santuak aditzera ematen duenez; ¿nondik eta nola zuek eta guk, pekatuetan begietara-ño sartuak gaudenok, segurutzat zerua eduki bear degu? .... Esan dezue *Jaungoikoa dala gizon-ona eta ez gu bezelako charar eta gi-sacharra eta erraz barkatzen dituala zuen utsegite eroak*. Kontu emen adiskideak, zer diozuen. Jesukristo da Jaungoiko eta gizon egiazkoa; baña Jaungoikotasuna; ez da gizontasuna eta orregatik Jaungoikoa ez da gizona, eta guchiago berriz oraiñdik zuen taberna laguna itzetik ortzera eta nola nai zuen mingaiñ loitutako lotsagabe orietan erabiltzeko. ¿Zer esan nai dezue desegokeri oiekiñ, Jaungoikoari atsegiñ ematen diozuela menturaz ichura eta errespeto gabeko zuen jardute nazkagarriakin? ¿edo Jaungoikoa dala sorrá eta gorra, jentill erriyak berentzat sortzen zituen jaungoiko palsoen gisakoa? ¿edo bein chit ona, eta zuek charar eta gi-sacharrak izandu eta izan nai dezuelako, eraman bear dituala, berrito zuekgandik iñillik eta pazienziarekin, Judio erri madarikatutako-arrek supri-ara-zi ziozkan burla, azote, arantza-koro, chistu, masalleko eta ostikoa-ak? ¿Beraz zuek ala nai dezuelako, Jaungoikoak bear du izan iñozo eta zuen parragarri? ..... Ez jarren! Ernesto eta lagúnak, ez jarren esan orrelako blasfemiarik! Jaungoikoa chit ona bai, eta guk esan al baño obeagoa da: pekatari osó damuta eta umilduari ez dio ukatzen, ez dio ukatuko eundaño bere barkazio eta amorio gozorik; baña Jaungoikoa dalako creatura guziak baño geiago begiratzen dio bere onra eta justiziari, eta orregatik eziñ utzi lezake kastigu gabe burlarik chikiena ere; eta artzaz burla egiñ edo bera aintzakotzat artu etzuen Luzifer eta bere lagun aingeru gaistoak, eta zenbait gizon, zuek bezela zerurako egiñak eta ara joatea uste zuenak, daukate inpernua beterik. Kontu beraz, adiskideak, nola itzegiten de-  
zuen Jaungoikoaz.

AGUSTIN JAUREGI-KOAK.

(Aurrandetuko da).

## ALBISTE ON BAT URTEORO BERRITZEN DANA.



**Edadean eta dotriñan lenagoko denboretako gizon-  
zar FERNANDO eta onen antzekoen, eta oraingo denboretako  
ERNESTO, eta bere gisakoen arteko «jolas-aldiya.»**



(AURRANDEA.)

Bañan nun agertzen dan eziñ eta gelago zuen blotz eta mingañetako errentasun eta erreskeri lasaia, da *Bulda Santua* ukitzean. ¡Jesus, eta zer gauza desegoki eta itsusiak esan dituzuen gay onetan! Ez ditut nai erreberritu loitu nadin beldurrez, eta entzuten daudenenganako begiramentuz. Sinistu zadazue, Ernesto eta lagun adiskideak, ez dala ori modua orrelako gauzak tratatu eta erabakitzeo: edozeiñ gai eta personagatik begiramentu geiagorekiñ mintzatu bear dala: alá egiten duela aziera ona, edo zerbait dakien gizon guziak; eta zentzu eta errespeto gabekeri oriekiñ asko ta asko loitu eta itsusitzen dituzuela zeren buruak. Ikusi dezazuen, bada, zer arrazoi guchirekin autaratu dituzuen, katoliko dan guziak errespetatu bear litukeen, personak; eta eskergabekeri are aundiagoarekiñ, asko estimatu bear zendukeen, gauza bat; esango dizuet oraiñ egiaz eta menaz zer eta zertarako dan *Bulda Santua*.

1 .<sup>a</sup> Ikusi dezue *barau-bijiliak* ez dirala nola nai, ez bada arrazoi egokiarekin. Eleiza Ama Santa Erromakoak jarriak, eta katoliko ona dan edo artzakotzaz egon nai duanak bear dituela atera, aginduak dauden eran, entzunaz eta obedituaz onela Eleizari, entzun eta obeditu nai badio beñik-beiñ Jesukristori. Eleiza santak agindutako *barau-bijili* oriek dirade, zuek obeto konturatu zaitezeeen, gure gorputza ezi, pekatuakgatik zerbait penitenzi egiñ eta len esan ditugun beste gauza santu aietarako Ama maitagarri ark ipiñi dizkigun pe-

cha edo kontribuzio batzuek bezela. Au arretaz gogoan artzazue.

2.<sup>a</sup> Fedeko egia da, Jesukristok emanik daukala Eleiza Ama Santak bear duan eskua kristauen pekatuak penitenziako sakramentuan barkatzeko, edo ez barkatzeko, pekatarien prestaerari dagokion eran: eta inpernu eta mundo guzia egia onen kontra jaikiko balira ere, au onela izango da; eta Elizak barkatzen duana edo barkatzen ez duana, inpernu eta lurren gañetik dagoan Jaungoikoaren aurrean, barkatu edo barkatu gabea geldituko da. Ezer ezetik gizona egiñ, eta onengatik bere burua gurutzeratu zuan Jaungoiko guzialdun eta zeru lurren jabeak onela erabaki zuan, zezakeanak bezela, inpernuko deabru eta munduko aundi-mandiai batere galdetu gabe, eta ez dago oni arabakia zer jarririk; ez bada Jaungoikoaren aunditasun eta miserikordi-arraigarrak ezagutu, burua makurtu, gure ezereztasuna aitortu eta amen egiñ baizik. Jaungoikoa alabaindane, Jaungoikoa da, eta gizona gizon; au da arren kreatura, guziguzia berari zor dion argal eta pekatari bat.

Eskubide miragarri onekiñ ornitatuko Ama Eleiza Santak, begiratuaz mundu guzian zabalduak dauzkan bere seme katolikuen animetako premiari, ta mugituaz aenganako amorio eta urrukimentuz, ariñdu nai izan die Obispoa edo Erromara joaten lotsa eta nekea beren pekatuen barkazio-billa, eta onetarako ipiñi ditu bazter guzietan bere ministroak pekatarien konfesioak entzurt eta aren utsegileak barkatzeko; baña barkazioa iristeko neurriak erraztutzearekin, bere umeak, ondo bearrean, zabartu ditezke-alako beldurrik arturik, ipiñi ditu konfessoreetan eskubide mallak, pekatuetan dau den bezela, ematen diolarik konfessore batzuei pekatu mota batzuek bakarrik eta ez hesteak, barkatzeko eskua: beste zenbaiti, pekatu aek berak eta beste larriagoko batzuek.barkatzekoa, baña ez besterik; uzten duelarik Obispo Jaunen eskuan itsusiago eta nabarbena-goko beste zeinbaiten barkazioa, eta gordetzen duelarik azkenik Aita satituak beretzako bakarrik, seta gaistozko zenbait pekatu larrienak: gertatzen dala emendik pekatu batzuen absolutzio edo barkazioa iristeko joan bearra erremedio gabe (eriotzako-orduz kanpora) apaiz batengandik besteagana edo Obispo Jauna-gana edo Aita Santua beragana. Gauz-au dago, bere ume guziak zerura eramai dituan eta Espiritu Santuak argitu eta laguntzen dion Ama Eleiza Santak, ipiñia. Aitor gentzake, beraz, arrazoi eta begiramentu chit aundi eta egokiaz eukiko duela orrela erabakia; eta ez dezue ori zer miretsirik, bada munduko erreñu guzietan ikusten degu, era orretan daudela eztabaita edo auziak eta gaistakeriak erabaki eta barkatu edo kastigatzeko juez eta tribunal malla chi-


kienengotik aundienengoetaraño, erri chikietako juezetatik korteko tribunal buruaño, arkitzen dala oen guzien gañetik, malla oriek ipintzen dituan gobernu Errege edo buruzaya. Ar-ezazue bada gauza au arretaz kontuan gero esan bear dedana argi eta errés ikusi dezazuen.

3.<sup>a</sup> Jakiñ bear dezue gañera, Jesu-Kristo gure Jaunaren odol tanta bat bakarra aski eta oraindik geiegi zala inpernuko deabru eta munduko gizonen pekatu guzien zorrak oso kitatzeko; baña ala guziaz ere, nai izan eta eraman zituala neke-oñaze izugarriak eta eriotzarik lotsagarriena, merezitzen zuala onela milla-millaka mundu eta are geiagoen pekatuen zorrak kitatzeko diña; zergatik arren merezimentuak, Jaungoiko batenak diralako, ez due kaburik.

Birjiña María Jaungoikoaren Ama eta Aingeruen Erregiñak, pekatuaren itzalaren iduriarik etzuelarik ere, bizitza luze eta saminiñ saminiñena eraman zuan, eta eziñ esan ala merezimentu irabazi zituan. Orobat Apostoloak eta larogei bat milloi martiri santuak beren odola išuri eta bizitza eman zuten, eta beste santu askok beren pekatuak zor zuen baño penitenzi andiagoak egin zituen, irabazten zuelarik onela animako ondasun, interés eta aberastasun ugariak; eta gure Jaungoiko maitagarriak, pekatariai dioen amorioaz, bere eta santuen irabazi eder eta ugari oek utzi zizkion Eleizari, bere grazi-gordairuan gorde, eta ama maite eta aberatsak bezela, joan zedin gero zabaltzen purgatorioko anima gaišo, eta lurreko bere ume katolikoetan, zeñak, beren penitenzi eta obra onen paltan, aiek irabaziaz bederen, beren zorrak ariñdu edo kitatu zituzten. Eta Eleizak, bere muga eta bazter gabeko gordairu orretatik zabaltzen dituan ondasun eder oriei, deitzen zaie *barkamen* edo induljenziak: eta fedeko egia da, Ernesto eta lagunak, Eleiza ama santak badituala eta eman litzakeala barkamen edo induljenzi oriek. ¡Eta zeñ egi pozgarria, nere adiskideak, katoliko guzientzat! Orañi bada gauza oek onela diran ezkeror arretaz entzun eta eranzun.

AGUSTIN JAUREGI-KOAK.

(Aurrandetuko da).



¡La lucha habia terminado, y principiaba el sacrificio!  
 Lo aceptó y consumó, sin que nada pudiera turbar en adelante la  
 enérgica firmeza de su augusta voluntad.  
 ¡Combatió y triunfó por salvarnos, y murió por nuestro amor!  
 ¡Ay! ¿Cuándo aprenderemos nosotros á luchar y vencer por Él?

JUAN VENANCIO ARAQUISTAIN.

---

## ALBISTE ON BAT URTEORO BERRITZEN DANA.

---

**Edadean eta dotriñan lenagoko denboretako gizon-  
 zar FERNANDO eta onen antzekoen, eta oraingo denboretako  
 ERNESTO, eta bere gisakoen arteko «jolas-aldiya»**

---

(BUKÁ.)

1.<sup>a</sup> Pecha edo kontribuzioak ipintzen dituan Errege edo gobernu batek, ¿balitzake ariñdu eta osó kendu ere, naiz persona bati, naiz askori, naiz ipiñi dien guziaz? Dudarik gabe esango dirazue baietz.

2.<sup>a</sup> Errege edo gobernu, juez eta tribunal mallak ipiñi eta oei eskua neurtu dioen batek, luzatu edo laburtu lezaioke esku ori? Au ere aiñ gauza argia da, nun eziñ ukatu dezakezuen.

3.<sup>a</sup> Bere ume guziak bear eta opa lezakeen baño geiago duan ama maite eta aberats batek, ¿eman dezaioke, ala naiduanean, bere umeetatik bati edo zenbaitzuei zerbait geiago, beste umeen batere kalte gabe? Au esango dezue berriz, lengo galdeerak baño ere oraindik argiagoa dala.

Orduan, beraz, izanik Ama Eleiza Santa kristau fededun guziaz *barau-bijilien* pecha edo kontribuzioa ipiñi diena; ariñdu edo kendu leioke kristau bati, erri bati, edo guziaz. Izanik ere, Jaungoikoa-gandik duen eskuarekiñ, pekatuen eta konfesooren mallak ipiñi eta konfesorial eskua neurri diena, luza lezake, zenbait pekatarien mesedetan, len laburtu duan eskua. Eta izanik azkenik induljen-

zien muga gabeko gordairua duen ama guziz, aberatsa, eman leizkieke induljenziak, bere umeetako batzuei, besteen batere kalte gabe. Zenbait katolikoek mesedetan Eleiza Ama Santak egiñ litzakeen, oraiñ esan ditugun gauza oriek, egiñ zien bada eta egiten ere die Españaiko erreñu eta onen mendeko lurretan bizi-izan ziran eta bizi diran bere ume fededunai, beste erreñuetako katolikoek batere kalte gabe; eta españolak baditugula, besteak ez bezela mesede ondasun eta eskubide aiek agertu dezakegun, Eleizaren buruzai eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ordeko dan Erromako Aita Santuak, eman digu agiri edo paper bat, *Bulda Santua* deitzen dioguna; zeñaren bidez Españaiko katolikoak, beste erreñoetakoak eziñ lezatekeena, gloria eta atsegiñ santu batekiñ azaldu eta probatu lezakee, zenbait barau ta bijili egunetan jan lezakeela aragiya berak nai eta autatzen duen konfesore batekin balezakeala urtean beiñ edo bi aldiz beren konzienzia garbitu, batere Obispo Jaun edo Erromara joan gabe, (nun da konfesatzen dituen pekatuak ez diran Bulda Santuak beresten dituan bi aietakoak) eta ariñdu edo kitatu litzakeela, beren pekatuen zorrak, penitenzi eta obra on askoren paltan, Eleizak ematen diezkeen animako aberastasun eta barkamen ugari eta bereziakin. Orra bada zer dan Bulda Santua, eta zeñ mesede eta ondasun ugari eta estimagarriak aren bidez Eleiza Ama Santak, beste erreñuetakoai ez, eta Españaiko bere ume katolikoai bakarrik ematen dizkigun. ¿Nork, zentzu gabea ez danak, ez luke naiko pecha edo kontribuzio astunetatik libre izatea, berak nai duan juez adiskide bateñin bere auzi eta utsegiteak erabakitzea, eta aldeza-keen interes eta ondasun guziak bereganatzea? ¿Nork bada. España guzian, nun da ez dan katolikoa, ez du naiko atsegin eta esker aundiz artu, ondasun eta mesede oriek guziak ekartzen diozkan, Bulda Santua? ¡Ai, Ernesto eta lagunak, eta zer ezagüera guchi eta esker gaistoak geran español asko! Ikusi bear zenukee nolako gutizi santuarekiñ beste erreñuetako katolikoak begiratzen dien Aita Santuak Españaikoai bakarrik egiten digun berezitze maitatsu-oni, Aitor ezazue garbiro, nere adiskideak, badezuela zuek, pekatuen zorrak ariñdu edo kitatzeko penitenzia egitearen, beste zenbaitek ainbat premi; maite dituzuela, eta geiegi ere bai, aragi gauzak jatea, eta izan ditzakezuela anbat anbat barkazio billa Obispo Jaun edo Erromara bertarâ joatea bear lutekeen zenbait pekatu. ¿Ez da bada izango zuentzat albiste edo berri on bat esaten badizuet zuen pecha oriek ariñdu eta animako premi eta zauri oiek erremediatu ditzakezuela emen bertan iñora gabe eta neke guchirekin? Orra bada nun dezuen gauza oek guzietarako *Bulda Santua*.

Begiratuaz bada, katolikoak zeratela diozuen aldetik, zuen anima gaīso eta tristeai, inpernuko leiza zulora amildu ez ditezen, artu ezazue Bulda Santua, eta garbituaz onen bidez zuen biotzetako loi eta ordoi zarrak nai dezuen konfessore batekin, eta egiñik ondo Pazkoaz, ekin zaiozue zerurako bide zuzenari apaindu eta indartzen dituzularik Buldaren grazia eta ondasun ugariakin zuen anima osó beartuak.

*Ernestok.*— Gero eta obeto ta egokiyago mintzatzen zera, adiskidea: eta arrayopola ¡kontu! chapel zabal orren azpian beste bu-ruenbat ez ote daguan. Dana dala, eman biar nazu, mesedez bederen, chapel orrek egiten dituben umietatik bat. Arrazoya dezu gañerakuan, ez dala Jaungoikoa guk nola nai autan ibiili biar gendukiana, eta gaizki itzegin badizugu, barkatu. Buldaren gañian esan dizkigutzun beste gauz-oiek onak eta egokiyak dirudite. ¿Baña ori aldezu Bulda? Gizona, nik beti aditu, eta mutill chikiya nintzala amari ikusi niyonez, etzenduen Bulda oraiñ zuk esan gaituzun gau-  
ea on eta pozgarry-ori ez bada letraz eta gurutzez estalitako paper basto zar bat.

*Fernandok.*— ¡Milla aingerua, ez nuan uste orrelako achur-kir-tenak ziñatenik! ¿Uste zenduen bada Bulda zala?... ¡baña! ez det ezer esan nai. Esan zadazue, zuek guziok edo edozeñek irichiko balu Errege edo beste dezakean batengandik pechetatik libratzea, edo daraman auzi batean berak señalatzen. duan juezak sententzia ematea, edo eizean ibiltzea, edo nai duan guzian burni bidietako trenean bere juan-etorriak duan egitea, edo onelako edo alako edo-zein gauzatarako, besteak ez duen, baimen edo eskubide bat, ¿zer eskatuko zenioke mesede edo eskubide ura ematen dizuen Jau-nari? Chapela eskuetan dezuela eta eskerrak nola eman asmatu eziñik esango zenioke—«Jauna, eman beizait agiri bat beardan lekuan edo eskatzen direnai erakusteko, eta ikusitakoan artzaz ba-liatzen utzi deiraten» ¿eta zér izango litzake agiri ura baimena edo eskubidea ematen duen paper bat baizik? izanik bada Bulda Santua, ikusi dezuen bezela, Eleizak Españiako katolikoai, beste erreñueta-koak ez dituen, ondasun eta eskubideak ematen dizkien agiri bat, ¿zer bear zuen izan eta zer naiko zenduen zuek izan zediñ *paper* bat baizik? Gañerakoan ez naiz sartzten Buldaren papera bastoa edo piña dan: beste agirietan ez dioe gauz-orri begiratzen, eta papera piña edo bastoa izan arren baimen edo eskubidea deitzen dioe, eta artza-kotzat euki oidue. Baña bai eranzun bear dizut ez dala zarrá, ez bada berria, urte-oro berritu eta urte baterako bakarrik balio duana eta izanik berri aiñ onak dakartzkiena deitu lezaioke egokiro *Albis-*

te on bat urte-oro berritzen dana. Gañerakoan, aitatu dezun beste chapel kontu ori ez da, Ernesto, une onetan batere egokia. Gauza serioak, serio tratatu bear dira. Nola ere bait oraingo aldian ere zeron oitura charrak orretara makurtu zaitue. Uste det au izango dala azkeneko aldia, eta ala izan dedin esango dizuet, lengo gizonak zituela chapel-aundiak, baña oraingoetan batzuek aski dituela chikiak, eta beste askok berriz batere bearrik ez duela. Nere chapel aundi onen azpian ez dagoala buru, ille guchi eta urte ta otz-bero asko gañean dituen, bat baizik. Emendik aurrera chapel bearra senti badezu, adiskide bezela zutzaz oroituko naiz, eta nola nere zabal onek, urteetan sartuchoa dalako, ez duan egingo umerik, artu dizudan naitasunagatik eta zuk desegokeri berriakin aserre arazitzen ez panazu, testigüen aurrean ematen dizut itza, testamentuan señalatua utziko deala izan dedin zuretzat nere egunen paltan, go-goan euki ditzazun zere bizi guzian chapel andi arren jabe aitona-gandik entzun zenituen arrazoiak. Baña utzi ditzagun jolas oek alde batera eta betiko, eta esan zaidazue zer iduritzen zazuen orain Bulda paper bat izateaz.

*Ernestok.*—Chit ongi dala, eta osó kontuban erori gaituzula; eta orra leyal aitortu: zergatik izanik Bulda, zuk esan eta gerok eza-gutu degunez, zenbait eskubide ondasun eta mesede ematen zaizkigun agiribat, paperian jarriya izan biar dizu; bada zer nai eskubide, dispensa, titulo, eizean ibiltzeko lizenzia, zezenak ikusteko eta trenean ibiltzeko, eche-char edo lur piskabatean jabe gerala agertzeko, itz batean, guzi-guzirako paper edo chartelak nai izaten dizkitzugu eta ematen dizkigute, eta paperik ez duben gizona motza, salduba eta galduba arkitzen dezu. Orretan, beraz chit ondo gatoz.—¿Baña etzaizu iduritzen zerbait tratu ez ote dijuan Bulda saltze orretan? Orren ondasun guziak animakoak eta Jesu-Kristo eta Santuak, zedorrek esan diguzunez, duan utzitakoak dituzu, ¿zergatik, bada, Eleizak saltzen dizkitzu dirutan? ¿ez litzake gauza egokiagoa Bulda ere ematea duan eta ez diru truke?

*Fernandok.*—Bulda eta beraren ondasun ta mesedeak ez dira, adiskideak, sal-erosten dirutan. Gai onetan iduripen itsusiak dauzkatzue. Buldaren bidez, beste katolikoak dituen zenbait kargetatik, beren burua libratu nai duenai, Eleizak ipintzen die ordañez miserikordiazko beste obra bat; au da barau eta bijili egun askotan aragia ez jateko, beren pekatuen barkazio billa Obispo jauna edo Erromara joan bearreko eta penitenzi astunak egiteko anima eta gorputzeko kargakgatik, limosna chiki bat egitea; eta trukaera ariñ eta pozgarri au berentzat nai duenak, aditzera eman bear due ontzat

artzen duela, señalatua dagon limosna egiñ, Bulda artu eta bertan bere izena ezartzearekin. ¿Eta zer gauza egokiago, eta zuek, Ernesto eta lagunak, zerura geiago alchatzen dezuenik, limosnacho batekin beartsuari lagunzea baño? Au da, esaten dezue Jesu-Kristoren legea, lagun urkoai karidade egitea. Au bada, eta ez besterik egiten du Eleizak Bulda Santuarekin. Ez da beraz erosten Bulda eta aiñ guchiago berriz onen ondasun eta mesedeak, ez bada Buldaren ondasunak nai dituenai eskatzen zaie aurretik limosna bat, baka-rrik Españaiko eta ez kanpoko erreñuetako, premientzat.

*Ernestok.*— Limosna besterik ez bada obe dezu isillik eta esku batek bestiaren berri ez dakiyela egin, agiriyan baño. Orrenbeste egiten usatubak gaituzu eta aurrera ere amazzpiko baten premiyan iñor ikusi ezkerro ez dizut nik biotzik ukatzeko.

*Fernandok.*— ¿Obeagoa da limosna isilla, osó borondate utsekoa eta Jaungoikoak bakarrik ikustekoa danean? Bai; eta ala obeagoa izango zan isillik euki bazenduen limosna egiten badakizuela eta aurrera ere egingo dezuela esate ori, tronpeta orrela jo gabe; bada ez genduan ori batere jakin bearrik. ¿Baña obeagoa da limosna isilla eta iñor jakin bagekoa, agirian egitea agindua dagoanean? Ez; zergatik agirian egin bear dan limosna, isillik egitearekin, ez dan agindua betetzen. Kontu egizue Donostiako teatro batean egiten duela pesta ondo funzio bat miserian arkitzen diran famili batzuek sokorritzeko asmoarekin, jartzen duelarik onenbeste edo ainbestean sartzeko chartel bakoitza; eta zuek, esanaz iñork jakin gabeko limosna ohea dala, badakizuela limosnak isillik egiten eta aurrera ere egingo dituzuela, nai zenutekeala chartel gabe, eta agirian dalako, ezer eman gabe sartu ¿emango lizukee orrenbestez chartela eta utsiko lizukee pesta ikusten? Ez, eta Tobias baño limosna emalle aundiagoak baziñateke ere. Adiskideak, eranzungo lizukee, eta arraizoarekin, ez gaituzu sartzen zuben isill limosnetan; ondo egiñak ondo agertuko dituzu, baña gaurko pesta dezu chartela pagatzen dizutenentzat.

*Ernestok.*— ¡Ai! bai, bai, alašen dezu: aginduba dagüena, ez daukagu egitea edo ez egitea, gure naian. Teatroko chartel kontu-orrekin osó arkitu gaituzu. Baña guk aditu dizugu limosna beti biar dutela egiñ aberatsak pobriai, eta ez pobriak aberatsai. Orañ bada ¿apaizak gure pobriak aldituzu limosna billa ibilzeko berengana-tzen dituztela Buldarekin, gure kuarto pişarguziak? Siñista gaitzazu, adiskidia, naiago giñuzki ala aien miseriya ta pobreza zurrekin gure aberastasunak baño.

*Fernandok.*— Baña, Ernesto eta lagunak, ¿zer nai dezue esan

oraño itzaldi orrekin? Bulda-limosnetan biltzen dan dirua menturáz apaizentzat dala? ¿Ori esateko diña ausardi eta gaistakeri badezue? ¿Gizonak, non bizi gera edo norekiñ itzegiten degu? ¿Bada iñor ez dakienik Bulda diru guzia partitzen dala iru pusketan, eta artzen dituela gobernuak, bat Eleizako kulto edo Elizkizun gastuetarako, bestea Elizak konpontzeko, eta irugarrena dala ospital edo eritegi eta miserikordi echeetarako (iru pobre mota gaur dan egunian arlote eta larruturik daudenak) eta ez dala arditik ere Aita Santu, Obispo eta apaizentzat, ez bada apaizak berak bear duela zuek bezela eta oraiñdik zuek baño ere Bulda bat geiago artu bere limosnarekiñ? Nondik eta zergatik bada berritsukeri itsusi oriek? Irakurri ezazue Bulda, galde zaiozue gobernu eta autoridade guziaz apaizetara, Obispo eta Españolatik kanpora joaten otedan arditik, eta konturatutakoan josi itzazue entenga banarekiñ zuen mingaiñ oriek, eta gizonak bazerate isill zaitzte gai orretan.

*Ernestok.*— ¡Zenbait gauza len ez geñikizkigunak esaten gaituzkitzun; Orduban ez dago erremediorik, salbatuko bagaituzu, guziok biarko dizugu Bulda ori artu.

*Fernandok.*— Zuek beti iraulka bide bazterrerá, jotzen dezue. Lenago guchiekiko bazterrera, oraiñ geiegikora, eta ez beñere bide erditik eta zuzen. Ez da Bulda batere prezisoa salbatzeko, baizik osó borondatezkoa. Nai duanak artu lezalte, eta nai ez duanak ez. Bulda da mesede aundi bat gure nekeak ariñtzeko, burni bidea dan bezela errez ibiltzeko. Gure denboretan eta oraiñ ere burni biderik ez dan lekuetan, ibiltzen dira gizonak, baña geiago nekatuta. Española Buldarik etzan denboretan eta oraiñ ere, beste erreñu Bulda ez danetan, salbatzen ziran eta salbatzen dira katolikoak, baña bijiliak atera eta penitenziak egiñ eta pekatuen barkazio billa zerbait ibilli-ta. Ez badezue trenean ibilli nai, iñora joatekotan bearko dezue oñez edo aldezen beste moduren batean ibilli: orobat bada zerurako bidean ez badezue nai buldaren bidez ariñ ibilli, ara joatekotan bearko dezue erremedio gabe bijili guziak eta penitenzi aundiak egin eta nunbaitetik zenbait pekaturen barkazioa ekarri. Bañan ez, zuek naizendukie Bulda gabe, Buldadunak bezin ariñ eta neke guchirekiñ ibilli, esan nai da, zuek nai zendukiela, oñetan babik atera ta izerditu gabe eta arditik ere pagatu gabe, nai dezuen guzian trenean ibilli, eta ez gu ibiltzen giñan bezela ler char egiten; eta au zorakeria dala es dago, Ernesto eta lagunak, zuei zer esanik

*Ernestok.*— ¿Baña zenbait pobre arlotek nola Bulda artu lezateke?

*Fernandok.*— Ernesto, eta orrelako pobre arloteak oñik ez aldue,

edo, erremedio gabe trenean ibilli bear aldue? Duda gabe oñez ibilli bearko lukie; baña beste iñork baño karidade geiago duen Ama Eleiza Santak badu orrelakoentzat begiramentua, erabakiak dauzka oei laguntzeko neurriak, erakutsiak ere bai, konfesoreak, eta orrelako pobreak oetara joan eta zer egin lezakeen jakitea daukate, eta ez zuek eta ez guk ez degu gai onetan batere zer buru galtzerik. Baña pobre kontu orretan esan bear dizuet, zenbait persona badirala gure goi-errian, erreal-zar bat ez duenak trenean ibiltzeko, eta ala guziaz ere oñez dijuazelarik, zortzen duela eskutu bat ere taberna zuloetan gastatzeko; eta zuen be-erri orretan ere bai omen dirala, Bulda artzeko beren buruak pobretzat daukazkienak, igande eta jaietan, kocheak beren kontura arturik, inguruetako errietara sagardo eratera joaten diranak. ¡Ai! Ernesto eta adiskideak, fede piska bat bagenduke eta animaren salbazioari zerbait begiratu nai bagenioke, millaka dauzkagun bizioetatik, bati belarriaren punta kentzea asko litzake, Buldarentzat bear dana sortzeko.

Orra bada, Ernesto eta adiskideak, agertua *barau-bijili* eta Bulda Santua zer eta zertarako diran. Zeiñ guchi eta gaizki zekizuen gai onetan: eta ez jakiñaz eta lasaikeriaz zenbat desegokeri itsusiak esan dituzuen. ¿Eta zer esan bear due zuei, illargiari zaunkaz egoten diran chakurrai bezela, begira eta atsegiñ eta parraz entzuten egon zaikitzen zenbait *meta-tantaik*, jakiten duenean oraiñ, chakur zaunkak zirala zuen arrazoiak? ¿Eta ori zuetako askok jakinduriko bizar aundiak arpegian, erleju kateak gerrian eta makilla pollitak eskuetan ibiltzen dituelarik?

Jolas aldia au bukatzeko demagun, Ernesto eta lagunak, bazter batean dagoala gizon talde bat, eta aetatik bat edo geiago ari dirala protestanteen erlijio, lege, oitura eta apaizakgatik zer nai gaizki esaten, eta besteak atsegin kontentu eta par aundiakin daudela entzuten: beste bazter batean berriz gertatzen dala ori bera juduen kontra mintzatzen ari dan beste sall-batekin; eta gauza oek aditu eta ikusirik zuei, an inguruan zaudetenoi, galdetzen dizuela norbaitek, ¿adiskideak, badakizue zer erlijio duen bi gizon talde oiek? Eta erantzuten diozuela, ezin esan gentzake zer erlijio duen, baña gauzak dirudienez, lenengo aiek ez dira protestanteak, aiñ guchi berriz bigarren oriek juduak, ez bada aiek protestanteen eta oek juduen kontrako amorratuak; bada soma ala gauza eta atsegin andiarekin aien kontra esaten ditue. Ondo eta arrazoi bidean onela eranzungo zenukee, bada ez da ikusten iñongo protestante eta judurik beren Erlijio, oitura eta apaizen kontra itzegiten, ez bada minberatu eta su bizian sartzen aietzaz iñork gaizkirik esaten badu.

Oraiñ bada ikusiko bagenduke beste aiek bezelako gizon talde bat taberna zulo edo kafe toki batean, garizuman arrai aragia nas-ten, edo garizumako ostiraletan aragi gauza jaten, edo Jesu-Kristo-  
ren Erlijioaz, Eleizaz, Aita Santuaz, purgatorioaz, inpernuaz, kon-  
fesioaz, Buldaz eta guzien gaiñ katolikoek apaizaz zer nai itsusike-  
ri esaten, edo atsegiñ eta algaraz entzuten, eta galdetuko balizuke  
lengo persona arrek berak, zer erlijiotakoa dan irugarren gizon tal-  
de ori, ¿zer eranzun genezake eta zuek zeok zer eranzungo zenio-  
teke? ¿Menturaz kristauak eta Aita Santua bera beziñ katolikoa dala  
gizon talde ura?

Zentzu, arrazoi eta lotsa zerbait duten gizon guziak eranzun  
dezaioela galdeera orri.

Ernesto eta adiskideak, gizonak utsegiteak, eta gazteak arroke-  
riak berekin ditue; baña zentzuko gizonen doaia da noiz ere bait  
begiak iriki, aek ezagutu eta erremediatzen saiatzea: eta guzi-guzion  
egitekoa, berriz, ill bear degula oroitzea.

AGUSTIN JAUREGI-KOAK.

